

Euskara juridikoa lantzeko ikastaro praktikoa

CONSEJO VASCO DE LA ABOGACIA  **LEGELARIEN EUSKAL KONTSEILUA**

EUSKARA JURIDIKOA LANTZEKO IKASTARO PRAKTIKOA

Euskaraz
Ez da jartzulpen - zehitzunik izango

Ikastaro honek erabat praktikoa izan nahi du, eta bere helburua Abokatuen euskaraz jarduteko beharrezkoak zailkien tresna egokiak eskaintzea da, hala ere, eremu judizialean nola judizioz kanpokoan.

Tokia : Bizkaiko Abokatuen Bazkunea

Egunak : Apirila : 19 eta 26
Maiatza : 3, 10, 17, 24 eta 31
Ekaina : 7, 14 eta 21

Orduko : (16:00tik - 19:00 arte)

EUSKO JAURLARITZA  **GOBIERNO VASCO**

Euskara juridikoa lantzeko ikastaro praktikoa

Aurtengo apirilaren 19an hasita eta ekainaren 21era arte, Bizkaiko eta Gipuzkoako Abokatuen Elkargoetako egoitzetan, *Euskara Juridikoa Lantzeko Ikastaroa* eskaini zaie abokatu euskaldunei.

Ikastaroa Legelarien Euskal Kontseiluak antolatu eta Eusko Jaurlaritzaren Justizia Sailaren laguntzarekin burutu da; beraz, ikastaro hori bi erakundeen elkarlanaren beste adibide bat izan da.

Justizia Administrazioan euskararen egoera hala moduzkoa bada ere, aurrerapausoak ematen ari dira, eta bide horretan garrantzitsuenetako bat abokatuen prestakuntza da; izan ere, abokatuak epaitegietan euskaraz aritzeko gaitasunik ez badute, ezinezkoa da herritarren eskubide hori bermatzea.

Ildo horri jarraiki, euskarazko prestakuntza juridikoa bultzatzeaz gain, epaitegietan euskaraz behar den moduan jarduteko tresnak eskaini behar zaizkie abokatu euskaldunei; horixe izan da, batez ere, ikastaroaren antolatzaileen eta irakasleen helburua.

Ikastaroa Bizkaiko eta Gipuzkoako Abokatuen Elkargoetan egin da aldi berean. Astero, ostegunetan Bilbon arratsaldean eta ostiraletan Donostian goizez, hiru orduko lan-saioetan, hamar astean zehar.

Lehenengo zatian, lehenengo bost lan-saioetan, Cesar Gallastegi, Deustuko Unibertsitateko zuzenbide-irakasle eta testu juridikoen itzulpengintzan aditua, izan da arduraduna. Bertan, besteak beste, gai hauek jorratu dira: euskararen erabilera eremu juridikoan historian zehar eta euskara juridikoaren gaur egungo ezaugarriak eta arazoak; Euskaltzaindiaren lana (*Arauk* eta *Hiztegi Batua*); letra motak; puntuazio-ikurrak; laburtzapenen kontua; idazkera (hutsune soila, zenbakiak, hitz-elkarteak, letra larrien arazoa...) eta joskera-arazo batzuk (erdarazko kalkoak, zuzenbideko ohiko esamoldeak, hitz- eta aditz-jokoak, adjektibo erreferentzialak...); zuzenbideko hiztegi berezitua... Hori guztia bideratu eta lantzeko, azalpen teorikoez gain, ariketak erabili dira. Azkenik, ikastaroko gaietarako buruzko bibliografia zabala jorratu da.

Bigarren zatian, azken bost lan-saioetan, UZEIko kide den Leire Zenarruzabeitia izan da irakaslea. Hizkuntza-baliabideak, idazmena eta terminologia juridikoa izan dira haren langaiak. Hizkuntza-baliabideen atalean, euskaraz idazteko orduan kontuan hartzekoak diren baliabideak landu dira: hiztegi eta datu-base terminologikoak (Euskalterm, Justizianet...), lexiko orokorreko hiztegiak, hizkuntza-arauak, idazkera-gomendioak, softwarea (Xuxen, Euskalbar...), eta euskarazko eskuliburu, lege-testu eta idazki-eredu juridikoak. Idazmenaren atala guztiz praktikoa izan da, eta, bertan, abokatuen idazki-eredu juridikoak euskaraz idazteko oinarrizko egiturak, gramatika eta estiloa jorratu dira, gehienbat itzulpen-ariketen bitartez. Azkenik, terminologia juridikoaren atalean, zuzenbideko jurisdikzio desberdinetako (gehienbat jurisdikzio zibileko eta penaleko) terminologia lantzeko ariketa praktikoa egin dira.

Parte hartu duten abokatuen esanetan oso beharrezkoak dira honelako ikastaroak, abokatuek, prestakuntza juridikoa izateaz gain, euskara ere landu ahal izateko, guztion helburu den Justizia Administrazioaren euskalduntzea gauza dadin.

Antolatzaileak ere pozik daude, eta, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, mota honetako ikastaroak urtero egitea dute buruan.

Aitzol Asla, abokatua
Ikastaroaren arduraduna